



**Guggenheim Bilbao Museoaren
jarduerak Euskal Autonomia
Erkidegoko ekonomian
izan duten eragina 1997-2000**

Sarrera

Dokumentu honetan laburbilduta aurkezten dira Guggenheim Bilbao Museoak egindako azterketaren emaitzak. Azterketa honek museoaren jarduerak, 1997ko urrian inauguratu zenetik 2000ko abenduaren 31ra, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian izan duen eragin ekonomikoaren estimazioa egitea du helburu.

Emaitza nagusiak

1. 1997ko urriaren 19tik 2000ko abenduaren 31ra arte, 3.600.000 bisitari izan ditu museoak. Bisitari hauen %83 museoa ikustera etorri dira Bilbora edo, beste arrazoi batzuegatik etorri badira ere, egonaldia luzatu egin dute museoa bisitatu ahal izateko.
2. **Bisitari horiek denboraldi horretan Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituzten zuzeneko gastuak 100.000 milioi pezetatik gorakoak izan dira, hots, pertsonako 28.900 pezetako gastua batez beste.** 100.000 milioi pezeta horiek honela banatzen dira onura handiena izan duten sektoreen artean:
 - Gastronomía: 35.191 milioi pezeta jatetxe, taberna eta kafetegietan.
 - Erosketak: 26.055 milioi pezeta denda eta saltokietan.
 - Ostaturia: 23.263 milioi pezeta hoteletan.
 - Garraioa: 5.869 milioi pezeta gasolina, bidesari eta abarretan.
3. Zuzeneko gastu hauek balio erantsia eta aberastasuna sortu dute Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian, **BPG 80.000 milioi pezetatik** gorako kopuruan areagotzera iritsiz.
4. **Sortutako aberastasun honi esker, urtean 4.000 enplegu mantendu ahal izan dira batez beste.** Adierazi beharra dago kopuru hau ez dagokiola sortutako lanpostu-kopuruari, Guggenheim Bilbao Museoak sortutako jarduerari esker mantentzen den enplegu-kopuruari baizik.
5. Jarduera ekonomiko gehigarri honek **15.000 milioi pezetatik gorako sarrera gehigarriak** ekarri dizkie euskal ogasunei, **BEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta PFEZren kontzeptupean.**

Hurrengo taulan laburbilduta daude magnituderik garrantzitsuenak:


	1997	1998	1999	2000	Guztira
Bisitari-kopurua	260.000	1.307.000	1.058.000	975.000	3.600.000
Eragin estimatua					
Zuzeneko gastuak	6.750	31.680	33.743	31.930	104.103
Sortutako BPG	5.244	24.612	26.215	24.806	80.877
Mantendutako enplegua	832	3.906	4.161	3.937	4.000
Ogasunen sarrerak	977	4.586	4.885	4.623	15.071

Metodologia

Azterketa honek KPMG Peat Marwick aholkularitzak 1998an landutako eredua hartzen du erreferentzia-oinarriztat, honako metodologia honen arabera:

1. Inkesta bat egin zitzairen museoak 1998ko ekainean eta uztailean bisitatu zuten 1.208 laguni, Bilbora zergatik etorri ziren jakiteko eta bisitarien gastu-profila estimatzeko (hotel, jatetxe, denda, garraio eta abarretako gastuak) beren jatorri geografikoaren arabera. Profilek bisitariak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egiten duten gastua bakarrik hartzen dute aintzat, enpresek eta bestelako agenteek museoari egiten dizkioten ekarpenez gainera.

Era berean, jatorri geografikoaren araberako bisitariaren profila eguneratu egiten da museoan aldi-aldi egiten diren inkesten emaitzen arabera, nahiz eta 1997. urterako 1998. urteko jatorri geografikoaren datuak hartu ziren oinarri.



2. Gastu hori abiapuntutzat hartuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko turismoaren tauletako Input/Output biderkatzaileak kontuan izanik, museoaren jarduerak BPGaren eta enpleguaren agregatu makroekonomikoetan duten eragina estimatzen da.
3. Sortutako BPG abiapuntutzat hartuta, museoak sortutako jardueraren gaineko zergen bilketaren bitartez euskal ogasun publikoen diru-kutxetara zuzendutako zenbatekoa estimatzen da.